




**Bilboko  
Elizbarrutia**  
DIÓCESIS DE BILBAO

**JESUS, GURE  
ADISKIDEA**

**C SAIOA**  
**ETXEAN, FAMILIAN EGITEKO**

**Delegación de Anuncio y Catequesis**  
**Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**



**JESUS, GURE  
ADISKIDEA  
(MK 10, 14)**

## **1. Helburua**

- Jesusen bizitzaren eta bere mezuaren oinarrizko uneak ezagutu eta kontatu.

## **2. Edukiak**

- KATEKESIA ALDERDIA. 1. helburua, Jesusen bizitzaren eta bere mezuaren oinarrizko uneak ezagutu eta kontatu.
- HITZA ETA OTOITZA ALDERDIA. 1. helburua, oinarrizko otoitzak ikasi.
- ELKARTEA ALDERDIA. 1. helburua, katekesiko taldea, topagunea.
- BIHOTZ-BERRITZEA ALDERDIA. 1. helburua, Jesusen jarraitzaile izaten ikasi.

## **3. Saioak**

- C saioa etxean, familian egiteko.

## **4. Aurkituko duzuna**

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saiaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

# C Saioa Etxean, familian egiteko



## Motibazioa

- Nor da Jesus?



## Idea nagusiak

- Jesus adiskidea ezagutu eta bere adiskide izan nahi dugu.
- Gu guztiok bere adiskide izan gaitzela nahi du Jesusek. Kristau guztiok Nazaretoko Jesusen adiskide eta jarraitzaile gara.



## Saioaren garapena begi-kolpe batean

### Jainkoaren Hitza, txatal argitzailea

Hainbat amak Jesusengana eramaten zituen haurrak, honek bedeinka zitzan. Baina ikasleek Jesusengangik urrun eduki nahi zituzten haurrak, "ez gogait eragin Jesusi, ez duzue ikusten lanpetuta dagoena?", esanez. Baina Jesusek esan zien: "Utzi hurrei niregana etortzen".

"Zure Lehen Biblia", Giltza, 396 eta 397 orri

### Bideoak

Egin klik  
irudiaren gainean  
'¿Qué es la amistad?'  
bideoa ikusteko



Egin  
klik irudiaren gainean  
'Los amigos de Jesús'  
bideoa ikusteko



### Jarduera

- "Kiniela". Nire adiskideak eta Jesusen adiskideak.



### Bilketa eta laburpena egiteko proposamena

- Otoitza: Jesus, zu beti zaude gurekin.







## Saiorako gida

### Familiarentzat...



#### Lehen zatia. Etxean elkarrizketan jarduteko

- Guraso eta haurrok parrokian egin genuena batera jarriko dugu. Zer egin genuen? Nola sentitu ginen? Zer gustatu zitzaigun? Zer kostatu zitzaigun?
- **"Jesusen historia umeentzat"** idazkiaren (haurren lagungarriak) lehenengo zatia –"Nor da Jesus?"- irakurriko dugu une honetan.
- Parrokian, haurren katekesiko saioan Jesus nor zen ikusi genuenean, zer esan zen gogoratuko dugu. Ahal izanez gero, tiretan idatzitakoa batera jarriko dugu.
- Etxeko saio honetan, Jesusen adiskideez hitz egingo dugu. Horretarako, adiskidetasunaz eta gure seme eta alaben adiskideez jardungo dugu. Zer dakigu gure adiskideez? Zer dakigu Jesusen adiskideez?



#### Bigarren zatia. Etxean egin eta katekesiko hurrengo saiora eramateko jarduera

"Día del amigo, zer da adiskidetasuna?" bideoa ikusiko dugu elkarrekin. Deigarrien gertatu zaienaz elkarrizketan jardungo dugu. Eta galdera hauek egingo dizkiegu: Zer baloratzen dute gehien beren adiskideengandik?

Adiskideen gaian gehiago sakontzeko, hona hemen joko bat adiskideei buruz. Gero batera jar daiteke adiskideen eta familiaren aurrean.

#### "Kiniela" dinamika

NOMBRE	CUMPLE	AITA Y AMA	Nº HERMANOS	ASIGNATURA FAVORITA	DEPORTE O JUEGO FAVORITO

Adiskide horien eta beren ezaugarriak hobeto ezagutzeko, **"Jesusen historia haurrentzat"** agiriaren bigarren zatia irakurriko dugu: **"Jesusen adiskideak"**.

Egin klik irudian  
**"Los amigos de Jesus"**  
bideoa ikusteko



Marrazki bat egingo dugu eta bertan beren izenak, ezaugarriren bat eta bakoitzarengandik gustuko dugun zerbait idatziko. Adiskide horien artean, Jesus eta bere ikasleak ere marraz ditzakegu, denok adiskide izan gaitzela nahi duelako. Marrazkia hurrengo saiora eraman eta taldean batera jar dezatela.



## Hirugarren unea. Otoitzaldia familian

“Egunean zehar, zein unetan gauden denok ikusi eta orduan bildu”. Ez da erraza izaten, baina seguru aurkituko duguna, egunean... edo astean, 10-15 minutuko tartea elkartu eta otoitz egiteko.

“Musika apur bat”. Itzali etxekeo tramankulu zaratatsu guztiak eta lasaitzen, abiadura moteltzen lagunduko digun musika jarri.

“Isilunea”. Etxea isilik, zaratarik gabe dugula, isiltasuna ‘entzuteko’, dena itzalita dagoenean zer entzuten den jakiteko, aukera izango dugu.

“Geure buruaren barrualdera begiratu”. Geure burua aztertuko dugu nola sentitzen garen ikusteko: alai, triste, baikor, ezkor, amorratuta, sututa, esker oneko... eta besteen aurrean batera jarriko dugu.

“Eta elkarrekin...”. Kandela piztuko dugu, Jesus gure artean dela adierazteko. Unai Quirosen “La señal de la Cruz” abestia gogoratu eta, zeinuz lagunduz ,abestu egingo dugu.

Egin  
klik irudiaren  
gainean bideoa  
ikusteko



“Jainkoari kontatuko diogu”. Eskerrak emango dizkiogu Jainkoari egunean zehar bizi izandako sentimendu positibo eta gauza onengatik. Une honetan, behean dagoen “Jesus, Zu beti zaude gurekin” otoitza egingo dugu denok batera.

“Arnasa hartu”. Berriz ere, isiltasuna “entzun” egingo dugu. Une batez arnasa patxadaz hartu eta, ondoren, ohiko gauzetara itzuliko gara.

Gure denbora husteak, geldiunea egin eta pentsatzeak, geure barrualdera begiratzeak, une batez Jainkoarengan pentsatzeko aukera ematen digu. Eta harrigarria da, Nazaretoko Jesusen Jainkoarekin bat egin ondoren, bizitza, egunerokoa, beti desberdina dela egiaztatzea.

### “Jesus, Zu beti zaude gurekin”

Familian, parrobian, katekistekin,  
ikastetxean eta beste hainbat lekutan,  
Zu ezagutzeko eta kristau bezala bizitzen ikasteko  
aukera dugu.

**Eskerrik asko, Jesus!**